



## “Koordinazio postuak eguneroko lanetatik begirada altxa eta hurrengo pausoetara begira jartzeko aukera ematen du”

Berregituraketa urtea dugu aurten Bertsozale Elkartearen martxoan lehendakaritza taldea berritzearekin bat, koordinatzaile lanpostua sortzeko erabakia hartu zuten bazkideek Batzar Nagusian. Lanpostu horretara heldu berri da Oier Iurrumendi Etxeberria (Donostia, 1990), baina ez da berria elkartearen. Hernaniko bertso-eskolako kide, sustapena izan da bere lan arloa eta horrela eman zuen bere lehen pausoa Bertsozale Elkartearen ere: 2019tik Bertsozale Elkarteko sustapen eragile lanetan aritu da.

### Nola hartu duzu lanpostu berria?

Lanpostu berria ilusioz eta esker onez hartu dut, baina baita arduraz ere. 2019an iritsi nintzen elkartera, sustapen eragiletzan aritzeko. Baina duela bi urtetik hona, koordinazioa taldean hartzea erabaki genuenetik, koordinazio eta sustapen ardurak uztartu ditut. Lanpostu hau, beraz, ez da guztiz berria niretzat. Elkartea askoz zabalagoa da, ordea. Bolumen izugarria duen proiektua da eta bizi propioa duena. Ardura, indar eta konpromiso handiarekin heltzen diot talde izaera duen funtzio berri honi.

### Nolakoa izan da zure ibilbidea Bertsozale Elkartearen?

Ni sustapenetik nator, elkartera sartu aurretik ere horretan kokatzen bainuen nire burua, Hernaniko bertso-eskolaren dinamikaren barruan, irakasle eta herriko saioen antolakuntzan. 2019an elkartera sartu eta hiru hilabetera pandemia iritsi zen eta Elkarteko sustapen sailak norabidez aldatu behar izan zuen egun batetik bestera. Pandemia garaian plazako eragile bihurtu behar izan genuen; niretzat berria izan zen, baina elkartearentzat ere bai. Pandemiako bi urte horietan bizkor egokitzen jakin behar izan genuen.

Testuinguru horretan egin genituen pare bat urte eta ondoren Txapelketa Nagusia heldu zen, nire lehen txapelketa sustapen eragile gisa. Zurrumbilo horretan joan zitzaizkidan lehen hiru urteak. Elkartearen sustapenean bost urte egin baditut ere, bost urte berezi izan dira.



Oier Iurrumendi Etxeberria da Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzaile berria. //XDZ



HAIRA  
AIZPURUA IBARGARAI

ARANTZA 2024-06-15

EUSKAL HERRIKO ESKOLARTEKO  
TXAPELDUNA

*Doinua: XILABAr jina nauzu*

Muxu bat hurbilekoei gibelekoei beste bi oholtza hau erosoago bihurtu duzuenari. Oilanda izan nahi dugu ez dugu izan nahi azeri zutabeak behar dira ez izateko zailegi. Ez dugu neurtu gaitzaten kantatzen, eta gaitzerdi! Nahiago dugu urratsak egin erdi eta erdi. Ur hain gazi-goza hotan nahi baldin badugu segi elkarri eskutik helduta egin dezagun igeri!

Bost urteotan, txapelketaz gain, nire indarrak asko zentratu dira plazaren behaketan eta analisisan, eta pandemia osteko plazaren biziberritzean: orain arte hainbeste landu ez dugun eremu batean.

### Eta hemendik aurrera, zeintzuk izango dira zure funtzioak?

Elkartea berez dinamika propioa duen proiektua da, eta horri erantzuteko antolaketa propioa du. Hezurdura horrek funtzionatu dezan lan egitea izango da nire funtzioa. Gurea elkarte handia da: jende, helburu, ideologia, errealitate, bizipen... asko daude, eta konfiantza eta enpatia handiz jokatzeko gako dira nire ustez. Batez ere pieza guztien enpate eta engranaje lana bezala definituko nuke. Elkarteko proiektuaren eta funtzionamenduaren orekan begia jartzea.

Kanpo harremanena ere bada postu honi lotuta doan funtzio bat. Koordinatzaile gabe egon garen bi urte hauetan nabaritu dugu erreferentziatzeko pertsonaren falta gai konkretu batzuetan.

### Zertan lagunduko du elkartearen barne funtzionamenduan zure lanpostuak?

Aipatu dudan moduan, Bertsozale Elkartek ondo egonkortutako dinamika dauka. Horren erakusgarri da orain hartuko dudan lanpostua hutsik egon dela azken bi urteetan, eta elkarteak funtzionatu duela. Aurretik, pertsona bakar batek betetzen zuen funtzio hori, ondoren bik, eta taldean erantzuteko erabakia hartu genuen gero. Taldeak berak ordezkatu du ordura arte koordinatzaileak egindako lana. Talde horretan aritu garenok gure saileko lanak utzi gabe, koordinazioari dagozkion lanak ere egin ditugu.

Baina, egiturak funtzionatu badu ere, azken bi urteotan, funtzio konkretu batzuetan, nabaritu dugu hutsunea: guk gure lana egin dugu, izan dugu dedikazioa elkarteko koordinazio funtzioei erantzuteko, baina nabaritzen genuen premia epe ertain eta luzeko erronkei begira egongo zena pertsona batena. Askotan gure lana egunerokoak ematen dizkigun erronkei erantzutea izaten da, eta hain zuzen, koordinazio postuak eguneroko lanetatik begirada altxa eta hurrengo pausoetara begira jartzeko aukera ematen du. Horregatik, koordinazio lanetara bakarrik egongo den pertsona baten beharra nahiko hasieratik nabaritu genuen.



lurramendi txapelketako muntaketa lanetan. //XDZ

“ Gure proiektua Euskal Herri mailakoa izanagatik ere, hartzen ditugun erabakiek ez dute eragin bera leku guztietan, baina oinarria partekatua izatea oso garrantzitsua da” ”

Kontziente gara oso arin mugitzen ari den gizarte batean kokatzeko, magnitude honetako kultur elkarte baten antolaketak edo estruktura konplexutasun asko dituela. Eta, horregatik, koordinazioa taldean eramateak ikuspegi eta aberastasun handia ekarri digu. Beraz, nahiz eta ardura hau nik hartu, koordinazio taldeak ere martxan jarraituko du.

### Zeintzuk dira Bertsozale Elkarteen lan ildoak?

Elkartea bat da, baina beso asko dituena eta antolaketa mailan izugarriko dimentsioa du. Kultur proiektu mamitsu bat du, eta proiektu hori garatzeko sailka (ikerkuntza, Xepelar Dokumentazio Zentroa, sustapena, komunikazioa, hedapena, hezkuntza, Lanku...) eta herrialdeka banatzen da, eta etengabeko elkarlanean ari da inguruko eragileekin. Gure kultur proiektuari erantzuteko badugu oinarri bat, 2018an 220 lagun artean egindako gogoeta prozesutik datorrena, eta orduan hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat da proiektu osoa hiru zeharlerrok zeharkatzearena: feminismoak, lurralde artekotasanak eta belaunaldi artekotasanak.

Bestalde, iruditzen zait Bertsozale Elkartek etengabeko gogoeta, elkarrizketa eta eztabaida behar dituela. Gure proiektua Euskal Herri mailakoa izanagatik ere, hartzen ditugun erabakiek ez dute eragin bera leku guztietan, baina oinarria partekatua izatea oso garrantzitsua da. Leku eta eskualde guztiek ez dituzte logika berak jarraitzen, eta hori dena lur hartzeko lan handia egin behar da. Teleskopio bat bezala da, zoomaren arabera gauza ezberdinek hartzen dute presentzia. Eta denak garrantzitsuak.

Horrek eskatzen digu barne mailan antolaketa handia izatea. Edozein proiektu kanpora ateratzerako barne mailan lan handia egin behar dugu: oinarri adostu bat behar dugu, baina gero proiektu bakoitzak garatzeko modu ezberdina izan dezake eta emaitza ere ezberdina izan daiteke.

Eta gure proiektuaren oinarrian daude bertso-eskolak, borondatezkoak eta sortzaileak eta komunitate oso bat dago. Gure ardura da horiek zaintzea. Adibidez, bertsolarietaz hitz egiten dugunean, multzo oso handi bat ari gara izendatzen, eta guztiek ez dituzte behar berak. Ogibidea sorkuntza bera duten bertsolariak daude; ogibidea ez baina bertsolariak beraien karrera profesionalaren parte dutenak daude; edo beste batzuk aisialdirako erabiltzen dute bertsolariak.

Eta bertso-eskolak eta borondatezkoak zaintzea eta lan horretan jarraitzea ere bada gure beste lan ildoetako bat. Azken finean, bertsolariaren osasunaz ari garenean, emaitzen arabera neurtzen dugu. Baina emaitza horiek bertso-eskolek eta borondatezkoek egiten duten lan izugarri eta ikusezin baten ondorio da. Azken urteetan egin duten lan onari esker dugu gaur egungo egoera, eta ezin dugu horretan arretarik galdu, beraien ekarpenek markatzen baitute etorkizunerako oinarria.



Txapelketa Nagusiko final osteko prentsaurrekoa; tartean, Iurramendi. //XDZ

### Zeintzuk dira hurrengo urteetarako erronkak?

Aipatu dudan moduan, 2018an ezarri genituen hurrengo 12 urteetarako oinarriak. Orduetik 6 urte igaro dira, egindakoa baloratu eta egiteko falta zaiguna lantzeko une egokia da.

Egunoari begira, erronketako bat ikusten dut gizartea mugitzen den abiadurara egokitzea. Iruditzen zait gure ingurua inoiz baino azkarrago ari dela mugitzen, eta bertsoaritzak, kulturak eta euskarak behar dituen oinarri batzuk kolokan jartzen ari direla. Esaterako: euskara bizitzen ari den egoera, gazte belaunaldien joerak, kontsumo ohiturak, teknologiaren garapena, globalizazioa... Egoera horretan nola kokatu euskarazko kultur adierazpide bat, bere molde eta tempo bereziak dituen? Azkar erreakzionatzeko gaitasuna garatzean jarri behar ditugu indarrak. Somatzen dira aldaketa batzuk, alarma batzuk hasi dira pitzen eta gure erronketako bat da gure elkarte eta proiektua non kokatu jakitea.

“ Gizartean dauden kezkak guregan ere eragiten dute: euskararen aurkako oldarraldia esaterako ”

Bestalde, uste dut beste erronka garrantzitsu bat dela proiektu kulturalaren eta behar estrukturalaren arteko oreka bilatzea. Kanpora lan on bat egiteko barnekoak ondo engranatuta egon behar du, eta horrek lan eta dedikazio izugarria eskatzen du. Hau ez da kanpotik ikusten askotan baina gauzak ez dira bere kasa etortzen.

Eta uste dut elkarteari dagokion beste lan bat dela bertso

munduan dauden ahots ezberdin guztiak entzutea. Gero praktikan oinarri eta norabide bat hartu behar du dena den, eta horrek gai batzuetan posizio bat hartu beharra dakar, bestela ez dago aurrera egiterik.

### Zein unetan dago bertsoaritzaren momentu honetan?

Bertsoaritzak azkenengo hamarkadetan izan ditu fase ezberdinak, ezagunena 1990ko hamarkadako gorakada izugarri hori da; elkartearen sorrera bera ere testuinguru horretan etorri zen. Plazari begiratuta asko hazi zen bertsoaritzaren beste aro bat izan zen gorakada horren egonkortzearena (2010-2020). Hor izan zen aldaketa nagusia feminismoaren integrazioa izan zen. Plaza kopuruan baino plazaren nolakotasunean izan zuen eragina: beste pertsona batzuk, beste izen batzuk, diskurtso batzuk sartu ziren, beste gorputz batzuk.

Pandemiaren etorrerak eragin zuen ia-ia bere kabuz martxan zegoen eta gure ustez indartsu zegoen diziplina bat hauskor bihurtzea. Bi urte eman genituen egoera nahasi batean eta pandemiaren bukaerarekin ikusi da lehengo leku hori ari gaita berreskuratzen. Baina niretzako orain momentu oso interesgarri batean gaude, ez baitakigu irakurtzen zein momentutan gauden. Beti da errazagoa iraganaren inguruan hitz egitea, baina zein momentutan gauden asmatzea oso zaila da.

Niretzako oso momentu interesgarria da, gure tokia berreskuratu dugulako, baina etor daiteke zerbait hori kolokan jarri dezakeena. Momentua bera aztertuta, bertso plaza kopurua ona da, plazetan jendea badabil, txapelketako publikoa gora doa, telebistako audientziek gora egin dute... Momentuko osasuna ona da, baina, aldi berean, datozen urteetarako tentuz ibiltzeko eskatzen digu zerbaitek. Eta nire ustez horren atzean dago gizartean dauden kezkak guregan ere eragiten dutela: euskararen aurkako oldarraldia esaterako. Horrek eragin zuzena du bertsoaritzarengan: euskara dugulako izateko arrazoi eta oraindik ondorioak sumatu ez baditugu ere, horretarako prestatu behar gara. Erreakzionatzen hasi behar dugu ia-ia ondorioak nozitzen hasi baino lehen.



## Puntu jarrita

JON ETXEBARRIA TXONTXE

Bertsolaritza, orobat, kanpotik eta entzule bezala bizi izan dut, zeren hogeita hamar urteak pasatuta hasi nintzen bertso-eskolen dinamikan. Baina argi daukat euskararen biziraupena mirakulutzat hartu den bezala, bertsolaritzarena mirakulu handiagoa dela. Izan ere, bertsolaritzak eutsi ez ezik, garatzea eta areagotzea ere lortu du, euskararen erabilerak ez bezala. Horrela, bertsolaritzaren mirakulua haria beraren mirakulua da, horren mehea, horren hauskorra, belaunaldiz belaunaldi transmititutako bizkarrezur biguna, baina gai dena mota askotariko jantzien ardatza izateko. Bertsoak josteko haria ez da eten, osasuntsu dago bertsolaritza, kuantitatiboki eta kualitatiboki, baina aurrekoari eutsiz etengabe eguneratu beharra du bere testuingurua den euskal komunitatea arriskuan baitago.

Hortaz, arbasoen firuari eutsi behar diogu bertsoaren haria hautsi ez dadin. Alde batetik, ezin da orratza kamustu, jarrera kritikoagoak behar dira, nahiz eta batzuetan mina eragin diezaguketen. Bestaldetik, oihal anitzak erabiltzea ezinbestekoa da. Bide horretan, gai lokatuagoak plazaratzeak eta bertsolarien perfilak desberdinagoak izateak ere lagunduko lukete.

Azkenik, gaur egungo bertsolaritzak oreka beharko luke transmisio formala, ez-formala eta informalaren hirukian. Eta, bereziki, bertsolaritzaren oinarri izan zen bertso ikaskuntza informalak behar du arreta, bertsolaritza gizarte kapitalista honen kontsumitzeko beste ikuskizun pasibo bat bihur ez dadin. Gauzak horretara, orratz zorrotzak eta gutxienez beste batekin ikasitako puntada egokiak dira gakoa bertso eremuen arteko oreka josten jarrai dezagun, goi mailako Balentziaga jostunen, jantziei konponketak egiteko jostunen edota aisialdian urratutako arropetan jositako petatxe jostunen artean. Joanes Igeregi bertso jostuna, zergatik jarraitu edo ikasi beharko genuke bertsoak josten helduaroan?

# Koplak

## Bertso irakasleak behar ditugu datorren ikasturterako

Bertsozale Elkartek hezkuntza arloan martxan duen proiektuaren baitan, bertsolaritza saioak eskaintzen ditu. Zure garapen profesionala hezkuntzarekin eta bertsolaritzarekin lotuta ikusten baduzu gurekin lan egiteko aukera daukazu. Informazioa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian topatuko duzu, lan eskaintzen atalean. Lan egin nahi duzun herrialdeko formularioa beteta eman dezakezu izena.

## Poto-Finixa



## Bertsolaritzari buruzko ikastaroa eskainiko dugu uztailean

Oraindik aukera dago 'Nondik eta zeri ari gatzazkio bertsoan?' UPV/EHUko Uda Ikastaroetan izena emateko. Euskal Herriko Bertsozale Elkartetik bideratu da ikastaroa, uztailearen 4an eta 5ean eskainiko da Donostian, Miramar Jauregian. Bat-bateko bertsogintza garaikidearen sorkuntza mailako kezkei buruz hausnartzeko eta gogoetak partekatzeke gunea izango da. Izen-ematea [www.uik.eus](http://www.uik.eus) atarian egin daiteke



PUBLIZITATEA